

Festatik, lasterketara

Lasarte-Oriako I. Mendi Lasterketa aurrera eramango du Lasarte-Oria Trail elkarteak etzi, hilak 16, igandearekin, Buruntzan / 10

TXINTXARRI

Gobernu berria eratu dute

Lasarte-Oriak koalizio gobernu bat izango du udalerrri gisa eratu zenetik aurrenekoz; sozialistek eta jeltzaleek osatuko dute / 2

Udalak hondakinen gaikako bilketaren datuen aurrean azaldu duen "harrokeria" kritikatu du Eguzkik / 3

Xuhakan Txakur Elkarteko kideak "oso pozik" daude lehiakideen jarrera eta lanarekin / 4

Urrian egingo duten Euskal Herriko Neska* Gazteen Baterajotzea aurkeztu du Asunak talde feministak / 5

Mugan musika taldea elkarrizketatu dute Oriarte BHIko Euskara Batzordeko ikasleek, oporren aurretik / 6-7

Donosti Cup-eko Europa League fasea irabazi du Ostadar SKTko B16 kategoriako taldeak / 11

Santa Ana eguneko parodia prestatzen ari dira aktoreak; hilaren 23an artisau azoka egingo dute / 16

MERKEALDIA

2MÓ 199€

LEHEN 229€

PROGRESIBOAK

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

R.P.S. 91/70



Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA



eskatu
hitzordua
online

MULTIÓPTICAS
8. urteurrena



Udalbatza eratu osteko lehen ezohiko saioa aurrera eramán zuten udal korporazioko kideek. TXINTXARRI

Koalizioan gobernatuko dute PSE-EEK eta EAJK

Sozialistek eta jeltzaleek euren boto propioak baliatu dituzte gobernagarritasun ituna aurrera ateratzeko; datozen lau urteetan 183 proposamen aurrera eramatea dute xede. Kritikatu egin du EH Bilduk akordioa: "Dedikazioa eta antolaketa garestiago ordainduko dituzte herritarrek"

Txintxarri

Lasarte-Oria udalerrri gisa eratu zutenetik (1986ko otsailaren 15ean) aurrenekoz, alderdi bat baino gehiago egongo da udal gobernuan. 2023-2027 legealdian PSE-EE eta EAJ ariko dira elkarrekin; "egonkortasun handiagoa" nahi dute eta herri "solidario, elebidun, feminista, jasangarri eta bizi baten aldeko programa" garatu. Hori

erdieste aldera, hurrengo lau urteetan 183 proposamen gauzatzeko konpromisoa hartu dute. Bi egun lehenako aurreratutakoa berretsi zuten hilaren 13an egindako ezohiko saio batean, beraien boto propioak baliatuta: hamar aldeko boz (PSE-EE eta EAJ), lau aurkako (EH Bildu eta ELOP) eta abstentzio bat (PP); hori izan zen emaitza.

Bilkura hori baliatu zuten udal korporazioko kideek gobernuaren eraketa berriari buruzko kontu gehiago jorrazteko. Besteak beste, onartu zuten alkateak 51.891,15 euro gordin kobratzea urtean, dedikazio osoa duten zinegotziek 42.786,51 euro gordin jasotzea urtean eta lanaldi erdira egongo direnek 21.393,26 euro gordin poltsikoratzea urtean.



EH Bilduren bozeramaile Esti Garmendia, bere hitzartzean. TXINTXARRI

"Hainbat zalantza" ditu EH Bilduk

Ezohiko saioa bukatu berrikan, ohar bat bidali zuen EH Bilduk TXINTXARRI-
ren erredakziora, bere ikuspuntuaren berri emateko. Bozeramaile Esti Garmendiaren hitzetan, "hainbat zalantza" ditu koalizio subiranistak koalizio gobernu eratu berriari buruz: "Lehenengo ondorioa izango da herritarrek garestiago ordainduko dituztela alderdi horietako kideen dedikazioak eta antolaketa, alkateak %19,3 diru gehiago kobratuko duelako eta dedikazio osoa izango duten zinegotziek [PSE-EEren hiru eta EAJren bat], %16,9". Horrez gain, Garmendiak eskatu die zehazteko zeintzuk diren 183 proposamen horien "ildo nagusiak", eta Ana Urchueguia alkate ohiaren aferaren gaineko "irakurketa publiko bat" egiteko. "Ituna iragarri baino astebete lehenago eman zuten epaitegiak auzi horri buruzko behin betiko epaia, baina, udalak, akusazioaren parte izanik, oraindik ez du baloraziorik egin". Norabide horretan, legegaldari "gardentasunez" ekiteko eskatu die PSE-EEri eta EAJri. "Kanpainan zehar bi alderdi horiek elkarlanaren aldeko hitzak zabaldu zituzten, baina horrelako urratsek zaildu egiten dute bide hori".

ELOP alderdiak ere koalizio gobernu horrela eratzearen aurka bozkatu zuen. Miguel Angel Tolosa: "Iruditzen zaigu zerbitzua ez dela horrelako soldata igoerak proposatzeko bezainbeste hobetu".

183 proposamen horien gainean, Agustin Valdiviak aurreratu zuen hilaren 18an eramango duela plenora Michelingo kiroldegi berriko obren lizitazioa.

Gobernu berriko kideak eta batzordeak



AGUSTIN VALDIVIA (PSE-EE)
HIRIGINTZA



NURIA FERNANDEZ (PSE-EE)
SOZIOEKONOMIA ETA HEZKUNTZA



DAVID MATEOS (PSE-EE)
ZERBITZU PUBLIKOAK



NAGORE DURAN (PSE-EE)
PARTE HARTZEA



IÑIGO ZABALETA (PSE-EE)
OGASUNA



LOURDES ACEVEDO (PSE-EE)
GIZARTE ZERBITZUAK



TXUS ALONSO (PSE-EE)
JAIK



JON ANTXORDOKI (EAJ)
EUSKARA



ANNE UGARTEBURU (EAJ)
KULTURA



GOIZALDE PILDAIN (EAJ)
KIROLAK

Udala "harrokeriatan" dabilela kritikatu du

Udalak hondakinen gaikako bilketaren datuen aurrean azaldu duen "harrokeria justifikaziorik gabea" dela nabarmendu du Eguzki Talde Ekologistak, eta azpimarratu, oraindik gutxien birziklatzen duen udalerrietako bat izaten jarraitzen duela

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak iragan astean aditzera eman zuen hondakin organikoen zatikiaren gaikako bilketa "nabarmen" hobetu dela. Jakinarazi zuen maiatzean 73.270 kilo bildu dituztela, iazko tarte berean baino %60 gehiago (45.790 kilo). Hala ere, zehaztu zuen birziklatze tasa 7,5 puntu baino ez dela igo eta sortutako zabor guztiaren %51,5ekoa izatera iritsi dela urteko bosgarren hilabeteetan. Bada, gauzak horrela, Eguzki Talde Ekologistak azpimarratu du udalak birziklatze tasa igoera horren aurrean erakutsi duen "harrokeria eta euforia ez dagoela inolaz justifikatua". Eta adierazpenok egiteko, datuetan oinarritutako azalpen zabal bat egin du.

Azaldu dute udalak errefuserako edukiontzi sarrailadunak jarri zituen arren, horiek irekita jarraitzen dutela eta uda pasatu arte, behintzat, ez dituztela itxiko. Horrekin batera, etxeetara bidalitako birziklatze kit-etaz ere mintzatu dira, eta esan organikoaren edukiontziak zabaltzeko txartelak erabili ahal izateko dituztela lasarteoriatarrek errefusarenak



Hondakin organikoak biltzeko edukiotzietako bat. TXINTXARRI

irekitzeko ere (ixten dituztenean).

Tasa hazteari buruz

Eguzkiren iritziz, %50 organiko gehiago biltzearen datuak agerian uzten du "orain arte oso gutxi jaso dela eta oraindik oso handia dela hobetzeko tartea". Gaineratu du erakundeak berak jakinarazi duenez, hain handia dirudien %50 horri esker, Lasarte-Oriako gaikako bilketa orokorra (hau da, beira, plastikoak, papera eta gainerakoak barne) %51,5era

iritsi dela maiatzean. Gaineratu du orain arteko portzentajea baino gehiago dela, noski -2022an %44,9rekin itxi zen-, baina, hala ere, Lasarte-Oriak jarraitzen du izaten, Donostiarekin batera, San Marko Mankomunitatean gutxien birziklatzen duen herria, eta Gipuzkoako batez bestekoaren nahiko azpitik, gainera.

"Bost urteko atzerapena"

Talde ekologistak uste du Lasarte-Oriako Udalak mugitzen hasteko "azken momentura arte" itxarroteaz gain, mugimenduak

"minimo-minimoetara" mugatzen dituela, eta gailendu, bazela zerbait egiteko ordua.

Mugimendu horiek, ordea, "atzerapenarekin" datoz talde ekologistaren ustez: "Atzerapen hori gutxienez bost urtekoa da. Izan ere, Ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensio -Lasarte-Oriako alkatearen alderdi berekoa- harro jakinarazi zuen 2020an Gipuzkoako birziklatze tasa %55,24koa zela, eta, beraz, Europak 2025erako ezarritako %55eko helburua gaindituta zegoela. Bestela esanda, Gipuzkoako herriek, orokorrean, 2020an lortu zuten Lasarte-Oriako Udala orain 2025erako planteatzen ari den helburua". Datu horri jarraiki, adierazi dute garbi dagoela herriko erakundeak ez duela konpromisoaz harro hitz egiteko zilegitasunik.

Hobariak aplikatzea

Eguzkiren iritziz ondo dago birziklatzearen alde egiten duten herritarrei eskerrak ematea, baina hobe litzateke hobari edo deskontua aplikatzea: "Udalak tarifa finkoa inposatzen jarraitzen du. Hau da, birziklatzen dutenek eta birziklatzen ez dutenek berdindin ordaintzen dute. Tarifa finkoa antiekologikoa ez ezik sozialki injustua ere bada, arduraz jokatzeko duten birziklatzaileak zigortzen dituelako, eta axolagabeak, berriz, saritu. Izan ere, birziklatzaileek, konpromiso gehiago hartzeaz gain, tasa finkoaren bidez besteen

TARIFA FINKOA "ANTIEKOLOGIKOA" EZ EZIK, "SOZIALKI INJUSTUA" ERE BADELA SALATU DU

axolagabekeria finantzatzeko dute". Gogorarazi dute antzeko bilketa sistema duten inguruko herrietan hala egiten dutela.



Errekalde-Galarreta ibilbidearen zati bat. EGUZKI TALDE EKOLOGISTA

Bidegorri bat zabaltzeko eskatu dute

Gipuzkoako Foru Aldundia jendaurrean erakusten ari da Errekalde eta Galarreta bitarteko bidegorriaren egitasmoa. Alegazio bat jarri dio proiektuari Eguzki Talde Ekologistak, aurreikusitako zabalera handitu egin behar dutela uste duelako. "Hiru metroko bidegorri bat aurreikusi dute, txirridulari eta oinezkoek bi norabideetan partekatutakoa, baina, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Planaren zein Gipuzkoako Bizikleta Bideen Eskuliburuaren arabera, lau metro zabal behar dituzte".

Eguzkik aditzera eman duenez, 2021erako zerbitzuan behar luke bidegorri horrek.

1.000 euroko saria irabaz dezakete bezeroek

'Eskuratu 1.000 euro' kanpaina aurrera eramaten ari da Aterpea elkarteak egunotan, bere bezeroak saritu asmoz

Txintxarri

Kanpaina arrakastatsuenetako bat aurrera eramaten ari da Aterpea merkatarien elkarteak egunotan: *Eskuratu 1.000 euro*. Egitasmoaren xedea herriko komertzioetan erosteko ohitura

eratu eta establezimendu horiek indartzea da eta honetan datza: ekimenarekin bat egin duten dendetan hilaren 16a baino lehen erosten duten herritarrek 100 euroko hamar bonu irabazteko zozketan sartuko dira. Irabazleak

hilaren 27an gastatu beharko du diru hori, 17:00etatik 20:00etara.

Kanpaina martxan jarri dutenek zehaztu moduan, irabazleak ezingo ditu hamar bonu baino gehiago erabili establezimendu bakar batean. Herriko dendetan egin beharreko ibilbidea azkarrago eta erosoago gauza dezan, Aterpeak auto bat jarriko du bezeroaren eskura. Udaleko Sozioekonomia departamentuko buru Nuria Fernandezek azpimarratu du egitasmoa "oso baliagarria" dela komertzio txikiak bultzatzeko.



Aterpeko hainbat kide 'Eskuratu 1.000 euro' kanpaina aurkezten. TXINTXARRI



Xuhakan elkarteak antolatutako lehiaketan parte hartu zuen txakurretako bat, oztopo bat gainditzen, jabea alboan duela. TXINTXARRI

Txakurren eta jabeen harremana indartzeko

Xuhakan Txakur Elkarteko kideak "oso pozik" daude IV. Erabilgarritasunezko Kirol Mendetasun lehiaketak izandako harrerarekin: lehiakideen arteko giro ederra azpimarratu dute, eta aurreratu bosgarren aldia prestatzen hasi direla honezkero

Txintxarri

Erabilgarritasunezko Kirol Mendetasun lehiaketaren IV. aldia jokatu eta gutxira, Xuhakan Txakur Elkarteko kideek ekimen horretan bizitakoa baloratu dute. "Oso pozik" daude Apaor kaleko zirkuituan gertatutakoarekin. "Une batzuetan beroak estutu bagaitu ere, lehiakide guztiak

giro ederran aritu eta lan bikaina egin dute", adierazi du lehendakari Juan Mari Encinasek. Antolatzaile taldearen lana ere goraiatu du. "Haiek gabe, ez litzateke posible horrelako jarduerak gauzatzea".

Emaitzen berri ematez gain –arrosa koloreko taulan kontsulta ditzakezue gradu bakoitzeko

lehen hiru sailkatuak nortzuk izan diren-, Encinasek, elkarteko kide guztien izenean, eskerrak eman dizkie kolaboratzaile, ikusentzule eta jardueraren berri eman duten hedabideei.

Encinasen esanetan, 30 bikote inguruk parte hartu dute txapelketaren laugarren aldian, lau kategoriatan. Lasarte-Oriako

partaideak ez ezik,artzelona, Madril, Valladolid eta beste hainbat tokitakoak ere aritu dira. Azaldu dutenez, Erabilgarritasunezko Kirol Mendetasuna (EKM) izeneko diziplinaren helburu bakarra ez da animaliak jabeari men egitea, baizik eta bien arteko lotura sendotzea, harremana indartzea, ariketak ahalik eta

ongien gauzatu eta motibazioa sustatzeko.

Bestalde, aurreratu dute hasi direla honezkero datorren urteko lehiaketa prestatzen, eta aurrerago emango dituztela bosgarren aldia izango denari buruzko xehetasun gehiago. "Edozein txakur eta jabek parte har dezaket". Hortxe antolatzaileek herritarrei luzatu dieten gonbita.

Karmengo Jaiak ospatzeko prest eta irrikaz daude auzotarrak

Etzi, hilaren 16an, igandez, egun osoko egitarau bat aurrera eramango du La Esperanza elkarteak, Oria auzoan

Txintxarri

Sanpedroetatik eta Sorgin Jaietatik bi aste eskas igaro direnean, festa giroan murgilduko da berriro ere herria, zehazki, Oria auzoan. Karmengo Ama Birjinaren omenezko festak ospatuko dituzte bertan etzi, hilak 16, igandez, goizetik hasi eta iluntzera arte. Jardueraz betetako programa prestatu dute La Esperanza auzo elkarteko kideek, eta herritar oro gonbidatu dute bertaratu eta ekimenez gozatzera.

Herriko txistulari taldeak esnatuko du Oria, 10:30etan,

dianarekin. Ordu erdi geroago hasiko dira haurrentzako jolasak, eta 12:00etan etorriko dira LOZET elkartearen buruhandiak auzoa aztoratzera. Ama birjinaren omenezko meza 12:30ean izango da, Karmengo Ama kaperan. Bukatu eta gero, mokadutxoak eta edari freskoak izango dituzte zain herritarrek eliza kanpoaldean. Indarrak hartu bitartean Xumela koruaren errepertorioko abesti batzuk entzungo dituzte, talde hori arduratuko baita luntxa girotzear. Hori izango da goizeko tarteko azken jarduerak.



Haurrentzako jolas eta tailerrak ez dira faltako aurtengo Karmengo Jaietan. TXINTXARRI

Bazkalostean, freskatzeko aukera ederra izango dute haurrek, 16:30etik aurrera Brunet-Enea parkean egingo dituzten ur jolasen bidez. Ordu erdi geroago puzgarri batzuk jarriko dituzte beraiantzat toki horretan, eta askaltzeko

aukera ere izango dute. Bitartean, toka txapelketan parte hartuko dute helduek. 18:00etatik aurrera auzoan barrena ibiliko da Sorgin Dantzan, eta, ospakizunak ixteko, zunba saio bat eta Ibai Berriak taldearen kontzertua izango dira.

Asteartetatik larunbatetara irekiko dute Gaztelekua

San Pedro Jaien ostean, ohiko martxa berreskuratu dute udal instalazioek, horien artean, Gaztelekua (Jaizkibel plaza, 14). Jakinarazi dute hilabete honetan zehar asteartetatik larunbatetara irekiko dutela, 17:15etik 20:00etara.

Gaztelekua 12 eta 30 urte bitartean dituzten herritarrei zuzenduta dago: dantza areto bat, gela balioaniztun bat eta tailerrak, bilerak nahiz entseguak aurrera eramateko bina espazio ditu. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak kudeatutako KZGunea bertan dago; teknologia berriekin zerikusia duten edukiak lantzen dituzte han, ikastaro bidez.

Lehiaketako sailkapena

Partaidea (gradua)	Zakurra	Puntuak
X. Aginaga (oinarrizkoa)	Kai	92
I. Muxika (oinarrizkoa)	Izar	92
S. Ezquerro (oinarrizkoa)	Kira	90
Partaidea (gradua)	Zakurra	Puntuak
D. Parra (1. gradua)	Logan de Dagos	99
N. Fernandez (1. gradua)	Kara	95
M. Aranburu (1. gradua)	Troi	94
Partaidea (gradua)	Zakurra	Puntuak
I. Muñoz (2. gradua)	Teddy	146
D. Parra (2. gradua)	Tana	138
I. Pasto (2. gradua)	Fura de Querien Can	130
Partaidea (gradua)	Zakurra	Puntuak
J.M. Hernandez (3. gr.)	Ondra	188
T. Jimenez (3. gr.)	Bimba	131
O. Martinez (3. gr.)	Hiroshima	115

XUHAKAN TXAKUR ELKARTEA



Herritar talde bat, Okendo plazan, Euskal Herriko Neska* Gazteen Baterajotzea aurkezpen agerraldian. TXINTXARRI

Urriko baterajotzearen aurkezpena egin dute

Euskal Herriko Neska* Gazteen Baterajotzea deitu dute urrirako, eta Lasarte-Oriako Asunak talde feministak horren berri eman du. Egitasmoaren nondik norakoak azaldu dituzte, eta egitarauaren zehaztasunak ere eman dituzte agerraldi amaieran

Txintxarri

Euskal Herriko Neska* Gazteen Baterajotzea aurkeztu du herritar talde batek berriki. Okendo plazan egin dute aurkezpena, eta azaldu dute 2021. urtean egindako lehenengoaren ondotik, oraingoan zaintzaren auzia eztabaidatzea dagokiela, gaiaz badutelako zer esan. Bizitza eta kapitalaren arteko talka areagotu egin dela ikusten dutela azalduz hasi dute hitzartzea, eta nabarmendu, "prekaritatean murgildurik eta lanerako" bizi direla. Horrekin batera, ohartarazi dute gero eta gehiago direla gertatzen diren eraso arrazista, klasista eta matxistak. Hala, azpimarratu dute argi dutela "eure kontra eguneroko erreproduzitzen den sistema distopikoa" ez dutela erreproduzitu; "Orain da antolatzeke unea, iraultza feministara batzekoa, erresistentzia egitekoa". Erresistentziaz bestelako munduak irudikatzeke saltoa ere ezinbestean eman behar dutela iritzi dute, eta utopiak

lehertu behar direla, gaurdanik eraiki, txikitasetatik sortu osotasuna eraldatzeko anbizioarekin.

Zaintza sistema iraultzeko beharrez ere mintzatu dira: "Utopiak sortzeko bidean ezinbestekoa izango zaigu Mugimendu Feministatik udazkenean deituko dugun Greba Orokor Feministaz baliatzea. Grebaren bitartez borrokak artikulatu eta mugimenduak hauspotu, urgentziakoak diren aldaketak abiarazi, arrakalak sortu eta eraldaketan sakontzen joateko aurrebaldintzak sortuko ditugu". Gaineratu dute langile klasearen tresna historikoa dela greba, eta Mugimendu Feministak "forma berri bat" ematen jakin diona eta martxan jartzea dagokiguna, emakumeak, langileak, migratuak, bollerak, denok helburu estrategiko partekatuen baitan artikulatzeko gaitasuna duena.

Beste baterajotze bat

2021. urteko baterajotzean indar erakustaldia egiteaz gain, antolakuntzarako duten gaitasuna

argi utzi zutela nabarmendu dute. Oraingoan, berriz, zaintzaren auzia eztabaidatzea dagokiela gogorarazi dute. Horrez gain, "sistema bortitz eta distopiko honetan" utopia berriak irudikatzea beharrezkoa zaiela ere esan dute: "Honetarako tresnak sortzeko eta partekatzeke, erresistentzia eta alternatiba berrietan sakontzeko eta eztabaida estrategikoak emateko espazio propio bat behar dugu. Horregatik, Greba Orokor Feministaren aurretik, Euskal Herriko gazte feministentzat elkargunea izango den Baterajotzea antolatuko dugu".

Urriko egitaraua

Urriaren 13tik 15era Usurbilen egingo dute Euskal Herriko Neska* Gazteen Baterajotzea. Hiru eguneko egitasmoa izango da eta iragarri dute bertan gaua pasatzeko aukera egongo dela. Horretarako materiala eraman beharko dute parte hartzaileek (lo zakua, esterilla, kanpin denda...). Hiru egun horietan zehar, askotariko eskaintza egongo dela aurreratu dute: hitzaldiak, tailerrak, aisialdi eskaintza, eta abar.



Rukula taldea aurtengo sanpedroetan emandako kontzertuan. TXINTXARRI

Urmuga egitasmoan kontzertua emango du Rukula taldeak

Hilaren 29an izango da musika emanaldia, 18:30ean Zaraitzun (Nafarroa), Jaurrieta-Erremendia bidean

Txintxarri

Euskal Herriko bazterrak mendizaletasunez eta musikaz betetzeko asmoz ekin diote aurtengo Urmuga egitasmoari: ekialdetik mendebaldera, hilabete amaierara arte, hainbat mendilerrotan ariko dira musikari ugari, tartean, Rukula taldea. Hilaren 29an joko du, Nafarroan, Jaurrieta-Erremendia bidean, Et Incarnatus Orkestrarekin batera.

Urmuga Kultur Elkarteak sustatzen du bi zaletasun horiek uztartzeko egitasmoa, eta aurtengo ibilbidea hemeretzi egunetan gauzatu dute: Angulo portutik abiatu eta Hiru Erregeen Mahaiara iritsi arte. Horrekin batera, kultur proposamen

"aberats" bat eramango dute Euskal Herriko landa eremuetara, hiri eta populazio gune nagusietatik aterata. "Euskal Herriko naiz atzerriko erreferenteek parte hartuko dute eta Et Incarnatus Orkestraren ingurumarian jo", azaldu dute antolatzaileek.

Kontzertu horietako batean ariko da, beste artista batzuekin batera Rukula. Emanaldia 18:30ean izango da, Zaraitzun (Nafarroa), Jaurrieta-Erremendia bidean. Eurria egingo balu, Otsagabiako frontoian joko lukete. Interesdunek sarrerak helbide honetan eskura ditzakete: <https://urmuga.eus/product/uztailak-29-zaraitzu-jaurrieta-erremendia-nafarroa-garaia>.



TXINTXARRI

Bihotza eta giroa altxatu dituzte

Kale antzerkia Bultzatzeko egitasmoak uztaileko ostiral arratsaldeetarako ikuskizun bana dakar, beste behin. Lehena, Eidabe kultur ekimenaren *Gora bihotzak!* izan da. Bihotzak baino zerbait gehiago altxatzea lortu du hirukote protagonistak. Haur gehienak zoruan eseri badira ere, gutxi iraun dute horrela, Elvis, Tino eta Lilik dantzan jarri baitituzte berehala.



Mugan taldeko kideak, elkarrizketatzaileen galderak erantzuten, ikus-entzule ugariren aurrean. ORIARTEKO EUSKARA BATZORDEA

Mugan taldea, mugarik gabe

Oporretara joan aurretik, Mugan musika taldea gonbidatu dute Oriarte BHIko Euskara Batzordeko lagunek. Kideek ikasleen galderak erantzun, eta, ostean, 'Bizirik ez bagaude' diskoko zenbait abesti partekatu dituzte areto nagusia bete duten gazteekin

Libe Elvira Arizeta, Aritz Ramos Irazusta, Urko Ormazabal Zugarramurdi eta Maddi Lasa Ormazabal

Mugan taldea Donostiako euskal pop rock eta folk taldea da, Pablo Zurutzak 2017an sortutakoa, hain zuzen. Hark konposatutako kantu batzuk Joseba Pastorri erakutsi zizkion, eta ondoren, 2018an, beste taldekideak elkartu ziren. Disko bakarra duten arren, *Bizirik ez bagaude* izeneko, bigarrenaren bidean doaz eta kaleratutakoak bezain harrera ona izango duen esperantzaz daude.

Guk, lehen aipatu bezala, taldekide batzuk ezagutu ditugu, eta hauei elkarrizketa egiteko

aukera izan dugu. Euren lehen diskoari buruzko galderak egin dizkiegu, gehienbat. *Bizirik ez bagaude* lana zortzi abesti bereziz osaturik dago, eta gustura entzun ditugu horri buruzko esperientzia eta bizipenak.

Nondik dator zuen musikarekiko zaletasuna? Nondik atera zen zuen artean elkartzeko ideia?

Bakoitzaren musika zaletasunak, toki ezberdinetatik datoz, izan ere, bakoitzak bereak ditu. Gehienok musika eskolan hasi ginen musikara hurbiltzen, eta beste batzuk etxetik hasi baziren ere, horrela hasi ginen orokorrean. Adinean aurrera egin ahala, talde ezberdinak ezagutzen hasi ginen, eta hori

gustatzen zitzaigula konturatu ginen, guk ere hori nahi genuela ohartu bainekin.

Musika eskola bukatu genuenean, ez genekien zer egin, izan ere, dena bukatu ostean, "Eta orain zer?" galderarekin topo egin genuen. Denoi gustatzen zitzaigunez mundu hau, eta antzeko egoeretan geuden pertsonekin elkartu ginenez, taldea sortzeko ideia atera zen mahai gainera. Kuadrillan esaten hasten zara hasieran, brometan-edo, eta horrela Pablaren etxeko egongelan elkartzen hasi ginen.

Nondik dator taldearen izena? Nolako izan zen sorrera?

Izenaren historiari dagokionez, batez ere, presagatik izan zen;



IKASLEAK, KAZETARI

Oriarte institutua eta TXINTXARRI aldizkaria elkarlanean jardun dira 2022-2023 ikasturtean. Ikasturteko azken artikulua, ekainekoa, elkarrizketa bat izan da, Mugan izeneko musika taldeari egindakoa. Sorreraz eta 'Bizirik ez bagaude' diskoaz hitz egiteaz gain, zuzeneko emanalditxo bat egin dute.

lehen kontzertua iritsi zen eta izen bat eta logo bat behar genituen. Kantuak, normalean, haserre edo triste nagoenean idazteko ohitura dugu, hau da, muturreko muga horietara iristean. Horregatik erabaki genuen Mugan izena jartzea, kantak egoera horietan sortzen baitziren, mugetara iristen ginen egoera horietan. Askok erabiltzen dugu musika horretarako, terapia moduko bat izaten baita gehienetan.

Duela urtebete, zuen lehen kontzertuetan, "ziurrenik ez gaituzue ezagutuko..." esaten zenuten kontzertu horien hasieran. Orain, oholtzara irteteen berdina sentitzen duzuen edo gauza bera esaten duzuen galdetuko bagenizue, berdina erantzungo zenigukete?

Lehen kontzertutara ezagunak joaten ziren gehienbat eta aurpegi ezagunekin topo egiten genuen, Urrutirago joatean, ordea, bertan ez duzu jende ezaguna topatzen. Azkenean, kontzertuak musika talde ororentzat aukera onak dira, ezagutzera eramaten baikaituzte. Beraz, kasu horretan bezala, jende ezezagunekin topatzen garenean, aukera bat bezala hartzen dugu, eta ahalik eta ondoen jotzen saiatzen gara, jendea gure musikarekiko erakarritu sentitu eta ea gure musika gustatzea lortzen dugun. Orain ere, horrelako kasuak suertatzen zaizkigu; adibidez, orain, Sestaon (Bizkaia) joko dugu, eta ziur gaude, gehiengoak ez gaituela ezagutuko, baina positiboki hartzen dugu.

Askok erabiltzen dugu musika horretarako, terapia moduko bat izaten baita gehienetan. **Nolako izan da zuen lehen diskoaren harrera?**

Gu pixkanaka hasi ginen elkartzen, *sobre la marcha*, baina kontzertuetan jotzen ere hasi ginen pixkanaka. Beraz, momentu batean, egiten ari ginen guztia disko batean jasotzeko beharra sentitu genuen. Gure helburua lan on bat egitea zen, jendeari gustatuko zitzaiona.

Diskoaren azken bertsiorekin oso gustura geratu ginen, oso pozik; beraz, alde horretatik, oso harro gaude. Gainera, kritika onak jaso ditugu eta jendea ere badirudi guri bezainbeste gustatu zaiola. Izan ere, kontzertu gehiago ateratzen hasi zaizkigu horren harira.

Bestalde, badakigu duela gutxi kantu bat argitaratu duzuela, 'Mina baino lehen'. Zer moduz?

Kantari buruz jaso ditugun iritziak nahikoa onak izan dira, musika ezberdinagoa egin nahi izan dugu oraingo honetan, eta badirudi zaleei gustatu zaiela, oraingoz behintzat. Hilabete batzuk barru jendeak gure lana entzuten jarraituz gero, gustatu zaien eta arrakasta izan duen seinale izango da. Baina beno, bestela ez da ezer pasako, guk ilusio beraz jarraituko baitugu lanean.

Diskoaren azala esanguratsua eta originala iruditu zaigu. Nondik dator ideia?

Guk, Amaran (Donostian) ikasi genuen, eta hor gradu artistikoa ere bazegoenez, horren bidez, gaur egun tatuatzailea den mutil bat ezagutu genuen, Alex Aranburu. Berak gure diskaren azalean ageri diren antzeko figura asko marrazten eta sortzen zituen, eta guri ikaragarri gustatzen zitzaizkigunez, berarekin kolaboratzea erabaki genuen. **'Bizirik ez bagaude' atera zenutenean, abestietako bat fisikoki soilik kaleratu zenuten, '+' kantua. Zergatik da berezia?**

"AHALIK ETA ONDOEN JOTZEN SAITZEN GARA, JENDEA GURE MUSIKARA ERAKARTZEKO"

"OSO POZIK GERATU GARA 'BIZIRIK EZ BAGAUDE' DISKOAREN AZKEN BERTSIOAREKIN"

Lehen aipatu dugun bezala, musikariak izateaz gain, oso frikiak ere bagara, eta asko gustatzen zaigu diskoak erostea, gordetzea, barruan duena arakatzeta... Beraz, gure diskoak zerbait berezia edukitzea nahi genuenez, ideia hori bururatu zitzaigun.

Pablaren etxean bildu ginen batean izan zen, bere etxean geratu ginen lotan eta denak oheratu ondoren, bera izan zen itzarrik geratu zen bakarra. Horrela, kantu bat sortu zuen eta gugana jo zuen iritzi eske. Azkenerako, denon artean, grabatu eta amaierarako uztea erabaki genuen, fisikoki bakarrik kaleratuz. Ideia gustatu zitzaigun, desberdina eta originala zela pentsatu genuelako.

Nondik ateratzen dituzue zuen disko eta abestietarako horrelako izen filosofikoak, hala esatearren? Zer transmititzen dizue izen bakoitzak eta abesti bakoitzak?

Asko gustatzen zaigu abestien letrak garrantzia eta mezu on bat edukitzea, eta gehienbat sentimentuak transmititzea, modu horretan errazagoa egiten zaigulako ideiak laburtzea. Gauzak ere kamuflatu edo tapatzen saiatzen gara badakigulako jendeak irakurri egingo dituela. Adibidez, metafora hauekin komunikatzen dugu triste gaudela, hori zuzenean esan gabe.

Nola ikusten duzue euskal musikaren egoera azken urteotan? Estilo aldaketa bat ari da sartzen euskal lurraldeetan: reggaettoa, trapa... Horrelako mugimenduak indartzen hasi dira euskal gazteen artean. Hori oso ondo iruditzen zaigun arren, guk ere badugu gure tokia gure estiloa jotzeko, gitarrea, lasaia, *musica de viejos* esaten zaiona. Eta indartzen hari diren beste taldeak Dupla eta beste batzuk izango lirakeke, musika

"EUSKAL MUSIKA EZ DAGO GORENEAN, GAZTELANIAZ EDO INGELESEZ MUSIKA GEHIAGO ENTZUTEN DA"

"ABESTI GEHIAGO GRABATZEA DA GURE HELBURUA, BIGARREN DISKOA EGITEKO DIRU NAHIKOA LORTZEA"

elektronikoarekin gauza ederrak sortzen ari direnak.

Hala ere, gaur egun euskal musika ez dago bere gorenean, gazteriak musika gehiago entzun ohi duelako gaztelaniaz edota ingelesez, euskaraz baino.

Zein musikari edo talde da zuen erreferente une hauetan? Ala inorengan oinarrituta ez dagoen estilo bat duzuela uste duzue?

Taldekide bakoitzak bere gustuak ditu, hau da, bakoitzak artista ezberdinak entzuten ditu haien estiloaren arabera. Taldeari begira, ordea, Euskal Herri mailan, Gau izenekoa izan da iteke guretzat erreferentzia, eta, maila internazionalan, Coldplay. Azken finean, gero eta musika gehiago entzunda, orduan eta gehiago ikasten duzu.

Bestetik, bazen talde bat Eraul izenekoa, eta haren kontzertu guztietara joaten hasi nintzen ni, Pablo Zurutuza. Esan dezaket haiei esker hasi nintzela musika mundura hurbiltzen.

Nolakoa da kantu bat sortzeko prozesua?

Azkenean, guri benetan gustatzen zaiguna kantuak egitea da, baina, abesti bat sortzeko prozesua luzea da, ez da egun batetik bestera egiten, hilabeteak pasa ditzakezu.

Pablo etxean probak egiten hasten da, gitarra akustikoarekin, eta behin estribillo on bat duenean edo abestia osatzen hasten da. Esan dezakegu zatika egiten duela, hau da, estribillotik abiatuta hasiera edo amaiera bat ematen dio, zatiak lotuz.

Oinarria edukitakoan, konposatu dudana hori lokalera eramaten du, onartua den ala ez ikusteko. Ondoren, gitarrearekin ateratako akorde horiek beste instrumentuetan probatzen ditugu eta gauzak gehitzen joaten gara. Hilabete batzuek landu ondoren, estudiora iristen gara, guretzat zatirik politena da, kanpotik ezagutzen ez dena. Produktore bat dugu, eta gure ideiak filtratzen ditu. Proba-akats moduko bat da, gu ere ikasten joaten gara.

Nola hartzen dituzue taldeko erabakiak? Hau da, nork hartzen du konposizioaren lidergoa kanta bat egiterako garaian? Izan ere, konposizio prozesuan, erabaki garrantzitsu asko hartu behar dira, eta hori ez da beti erraza izaten.

Tamalez, Mugan demokrazia bat da. Denok ematen dugu gure iritzia eta denok gaude ados,

gutxi gorabehera. Eta noski, batzuei erabaki batzuk besteei baino gehiago gustatzen zaizkie, baina toki guztietan bezala. Gure erabakitze tresna, batzuetan, berehalako bozketa da; beste batzuetan, aldiz, denbora dezente pasatzen dugu erabakia ongi hartu eta pentsatzeko. Gauzak moldatzen doazen heinean, denok gustuko dugun zerbaitera iristen gara. **Zer ematen edo transmititzen dizue musikak? Zer sentiarazten dizue kantuak sortu eta abesteak?**

Lokalean gauden bitartean (abestiak sortzen, entseguak egiten...) oso gustura sentitzen gara, oso konbentzita gaude egiten dugunarekin. Guk gustuko dugulako egiten dugu. Gustatzen zaionari, ondo, eta gustatzen ez zaionari, ez dezala entzun gure musika; ez da ezer gertatzen. Kontzertu bat ondo ateratzen, oso sentsazio ona uzten dizu eta ziurtasun handia ematen dizu. Jendea alai ikusten duzu entzuten dagoen bitartean eta gu hor gabilta, geurean.

Kide batzuek kontzertuak pianoarekin bakarrik ematen genituen, bakarka, eta orain, talde batean egotean, aldaketa handia sumatu dugu. Egiten duzuna gustura egitea da garrantzitsuena. Musika munduan sartzeak ere musikari desberdinak ezagutzeko aukera zabala ematen dizu, lagun talde berri bat sortzeko musikaren munduan. Eta afariak egitea ere oso garrantzitsua da, kar, kar, kar.

Zer duzue buruan etorkizunera begira? Zeintzuk dira helburuak?

Lehen aipatu dugun bezala, gure hurrengo helburua abesti gehiago grabatzea da, betiere dirua edukita, horrek asko mugatzen gaituelako. Kontzertuak joz, diru hori lortu bigarren diskoa grabatu nahi dugu. Aurrekoan egin genuen bezala, kontzertuetan nahikoa diru lortzean estudiora joan eta lanean hasiko gara. Oso ondo pasatzen dugu gure artean eta espero dugu horrela jarraitzea denbora luzez.

Aipatu bezala, Muganeko kideak proiektu berrietan lanean ari dira. Bigarren diskoko lehen kanta duela gutxi kaleratu zuten, 'Mina baino lehen' izenekoa. Elkarrizketa honetaz gain, hiru kanta zuzenean entzuteko aukera izan dugu. Plazer bat izan da Muganeko kideak eta musika taldea barnetik ezagutzea.



TXINTXARRI

Lasarte-Oria eta Soria elkartu dituzte musikaren bidez


Alboka eta Coral de Soria abesbatzek ordubete inguruko saioa eskaini diete kapera bete duten herritarrei. Ama Brigitarren komentuko zenbait mojek ere ez dute galdu nahi izan eta goiko aldetik entzun dute prestatutako hamalau kantako errepertorioa. Lehenik, herriko korua aritu da, bisitarietako lekukoa eman aurretik. Bederatzi kanta abestu dituzte, elkarren artean bestelakoak, besteak beste Afrikako eta Samoakoak, dantzarako ere eman dieten erritmoekin. Euskaraz, berriz, *Kaiku*, euren abesti zerrendako azkena, eta Albokakoekin batera abestu duten *Izar ederrak*. Saioaren azkena, *Tourdion* izan da. Bisita eta harrera eskertzeko lore sorta bana eman diete bi zuzendarietako (Montse Latorre eta Marta Lopez), eta, Soriako lagunek, oroigarri bat lasarteoriarrei. Duela ia 50 urte sortu zuten Coral de Soria abesbatza, 1976an, Jose Pau Meler-en eskutik. Gaur egungo zuzendariak, Marta Lopezek, 2010ean hartu zuen beraren lekukoa. 50 kidek osatzen dute korua. Ama Brigitarren komentuan ikus-entzuleekin partekatu dituen abestiez gain, beste asko ere kaleratu ditu urte horietan guztietan zehar. Esate baterako, bi disko argitaratu ditu Soriako udal musika bandarekin batera. Azken ikasturteetan *Carmina Burana*, *Antologia de la Zarzuela*, Antonio Vivaldi konpositore klasikoaren *Gloria* eta Wolfgang Amadeus Mozart-en *Requiem KW 626* bezalako obrak interpretatu ditu.

Erakutsi berri dutenez, gustuko dute Soriatik atera eta han eta hemen abestea; 2018an, adibidez, Aita Donostia jaialdian izan ziren, Donostian.



IKUSI-MAKUSI


Zer ikusten du piratak bere katalogatik?
Aukeratu irudi ona.




Zeeer?!

Zer ari da pentsatzen balea? Eman marrazkitxo bakoitzari dagokion hizkia eta asmatuko duzu.

Horretarako, erabili beheko hizki-marrazki hiztegia.




HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA



ENGAINAGARRIAK

Txanpon eder hau goiko altxorretik atera da. Ondoko puskei erreparatu eta esan zeintzuk diren onak eta zeintzuk imitazio txar batekoak.







Bost itsaslapur hauek sekulako altxorra dute zain, baina bik besterik ez dute bidea aurkituko. Nortzuk?

ALTxorren bila

Sudokua

	U		H	N
N		H		U
		Z	U	
	N		H	Z
	H		Z	U
	Z	N		I

Loroek hiztun fama dute, ezta? Bete itzazu hutsuneak **HIZTUN** hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (H, I, Z, T, U eta N). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



Baietz Hamabi!

Horra hemen bi itsaslapur. Bata bestearen ispilu direla ematen du baina ez dira erabat berdinak. Aurkitu bien arteko aldeak. 12 dira guztira.

Bikotea

Loro hauen artetik bat bi aldiz ageri da. Zein da?

LOTMEk mendi festatik lasterketara egin du jauzi

Lasarte-Oria Trailek eskuartean duen "proiektu berria" aurkeztu du. Iragarri du lehenengo mendi lasterketa antolatu duela. Igande honetan izango da, hilak 16. Ekimenak "ilusio berezia" egiten diela nabarmendu dute antolatzaileek

Txintxarri

Duela zazpi urte sortu zen Lasarte-Oria Trail Mendi Elkartek (LOTME), eta ordutik hona, herritarren mendi zaletasuna sustatzeko, hainbat eta hainbat kirol jardura antolatzen dituzte, hala nola, mendi festa eta familia mendi ibilaldia.

Orain, ordea, beste pauso bat eman, eta bestelako proiektu bat abian jartzeko puntuan daude: mendi lasterketa. Lehenengoz antolatu dute aurten, eta iragarri dute igande honetan izango dela, hilak 16.

Lasterketak, hasiera batean 16 kilometro eta 910 metroko desnibel positiboa izango zuela aurreikusi zuten antolatzaileek, baina Lasarte-Oriako harrobi inguruan emandako azken mugimenduak medio, aldaketa batzuk egin behar izan dituzte. Gauzak horrela, zertxobait laburragoa izango da ibilbidea azkenean: 14km izango ditu, eta 800eko desnibel positiboa.

10:00etan abiatuko da lasterketa Okendo plazatik, eta Kale



LOTMEko kideak, lasterketaren aurkezpenan. TXINTXARRI

Nagusian barrena, Sasoetara igoko dira korrikalariak. Hortik, institutura bidean, Plazaolako bidea hartuko dute, eta behin bide horretako tunelak zeharkatuta mendi bidetara egingo diote Azkortetik, Buruntzara iritsi eta itzulerako bidea hartu aurretik. Helmuga Askatasunaren parkean izango da, eta bertan, amaieran hamaiketako txiki bat egiteko aukera izango dela eta iragarri dute.

Kiroldegiko dutxak erabilgarri izango dira 14:00ak arte, eta norbere objektu pertsonalak gordeta gera daitezten, kontsigna zerbitzua izango dela ere jakinarazi dute elkarteko kideek.

Antolatzaileek azaldu dute 200 bat parte hartzailek izena emango zutela aurreikusi zutela; inskripzioak nola doazen ikusirik, 160 bat izan daitezkeela aurreratu dute: "Pozik egoteko moduko kopurua da".

Sarien berri ere eman dute. Helmugara iristen diren lehenengo gizonetako eta emakumezkoak 100 euro jasoko ditu, eta horrekin batera, garailearen txapela eta lore sorta bat ere bai. Bigarren postua lortzen duten emakumezko eta gizonetakoak, berriz, 50 euroko saria jasoko dute, eta hirugarren sailkatuek, aldiz, 25 euro.

Horrez gain, Buruntza tontorrera lehena iristen den lasterkariarentzat ere izango da 100 euroko sari bat. Eta, azkenik, helmugaratzen diren lehen lasarteoriatarrentzat (emakumezko eta gizonetako) ere garaikur bana prestatu dute. Arduradunek uste dute diru sari horiek "erakargarriak" direla parte hartzaileentzat.

Dortsalak eta eskertzak

Dortsalak larunbatean, hilaren 15ean banatuko dituztela ohartarazi dute. 17:00etan hasi eta 20:00ak bitarte izango da horiek jasotzeko aukera Okendo plazan, eta horrekin batera, sorta eder bat ere jasoko du parte hartzaile bakoitzak.

Aurkezpen agerraldia amaitu aurretik, eskerrak eman dituzte antolatzaileek. Alde batetik, udaletxeari, eta zehazki sozioekonomia sailari, horren babesik gabe "ezinezkoa" litzatekeelako egitasmoa aurrera ateratzea. Kolaboratzaileak ere gogoan izan dituzte, eta nola ez, jardura aurrera atera dadin ahalbidetzen duten boluntarioak ere aipatu dituzte.

ASTE BURUKO HITZORDUAK

IGERIKETA

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Buruntzalde IKTKo Iñaki Garcia eta Ibon Eloa alebinek Espainiako txapelketa lehiatuko dute. Larunbata eta igandea. M86 kirol gunea, Madrilen.

ATLETISMOA

FEDERAZIOEN TXAPELKETA

Ostadar SKTKo Naroa Furundarenak Federazioen txapelketan parte hartuko du Euskadiko selekzioarekin. Larunbata. Iruñea, Nafarroan.

ARRAUNA

EUSKOTREN LIGA

Euskotren Ligako ontziek V. Bilboko bandera jokatuko dute.

Larunbata. 17:25. Bilbo, Bizkaian.
Orioko 23. Emakumezkoen Estropada - Oriko Kanpina XI. Banderari aurre egingo diote ligako eskifaiak. Igandea. 11:25. Orión.

KA E 2

V. Orioko kanpina bandera lehiatuko du Hibaikak.

Larunbata. 14:00. Orión.
Portugalete Uri Urena banderan parte hartuko dute ligako ontziek. Igandea. 10:45. Portugalete, Bizkaian.

ESKU PILOTA

ZIKUÑAGA PAPELERA TXAPELKETA

Intzako Jon Pello Artetrek eta Oiarpeko Ugaldek Escudero eta Usandizaga andoaindarren aurka jokatuko dute. Ostirala. 18:00. Hernanin.

PALA

SANTA ANA TXAP., FINALERDIAK

Santa Ana txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte. Osteguna. 20. 18:30. Loidibarren pil.

ZALDI LASTERKETAK

UDAKO DENBORALDIA

Udako denboraldiko jardunaldia lehiatuko dute.

Igandea. 17:30. Hipodromoa, Donostian.

LASTERKETA

L-OKO MENDI LASTERKETA

Lasarte-Oriako Mendi Lasterketa jokatuko dute. Igandea. 10:00. Lasarte-Orian.

TRIATLOIA

IRONMAN GASTEIZ

Trinkoko Zigor Gallardo kideak Gasteizko Ironman proba lehiatuko du. Igandea. 08:00. Gasteiz, Araban.

Ander Goenaga surflaria Europako txapeldun da

Europako txapelketa lehiatu dute Galizian. Ostadar Inklusioa taldeko kidea Prone 2 mailan nagusi izan da

Txintxarri

Lau urteko etenaren ostean, uztailearen 5etik 7ra Europako parasurftxapelketa jokatu zuten Valdoviñon, Galizian. Europako surflari onenak bildu dira A Frouxeira hondartzan eta Ostadar Inklusioa taldeko Ander Goenaga gaztea ere podiumeko gorenera igo zen, bakarka zein Espainiako selekzioarekin.

"Lau urteren ostean, ikaragarria izan da berriro Europako txapelketa lehiatzea. herrialde

ezberdinetako goi mailako kirolariak gure surfa eta gure lana erakustera", adierazi digu Goenagak.

Prone 2 mailan parte hartu du gazteak, eta, baldintza "paregabeetan" -eguraldi eta olatu onak-, bai sailkapen probetan, baita finalean ere, garaile izan da talde urdin-beltzeko kidea.

"Ez nuen espero aurrean egotea. Banekien aukerak nituela, nahiko enfokatua joan nintzen, irabazteko



Ander Goenaga (ezkerrean), podiumean. PARASURFING.ES

gogoekin, olatuak hartzeko gosearekin. Duela lau urteko Munduko txapelketatik hona jende

berri agertu da. Portugesak, alemaniarak, italiarrak.. denak dira arriskutsuak", onartu du surflariak.

Goenagaren garaipena ez zen Espainiako selekzioak txapelketan lortutako bakarra izan eta horiei esker, taldekako titulua ere eraman zuten selekzioako kideek.

Ligan ere, lehen postua

Atsedenek ez zuten izan Goenagak. Txapelketa amaitu eta hurrengo egunean Parasurf Ligako Espainiako proba jokatu zuen surflari gazteak, leku berean. Horretan ere lehen postuan sailkatu zen.

Europako txapelketako urrezko dominak lasaitasuna eman arren, Ostadarreko kidea adi egon zen:

"Europako txapelketara baino jende gehiago etorri zen. Irekiagoa da eta mundu guztiko jendea dator".

Gainera, surferako baldintzak okertu ziren: "Itsasoa mugituagoa zegoen, olatuak irakurtzeko zailago zegoen, baina ahal genuen guztia eman genuen. Hala ere, Sergio Salguero galiziarra izan zuen lagun eta, hari esker, podiumeko gorenera iritsi zela onartu du Goenagak. "Asko lagundu zidan, kristorena, taularekin, uretara joaten, txapelketan eta horregatik irabazi genuen".

Ez da lehiaketa garaia amaitu, ordea. Espainiako kopa zein txapelketa, Munduko txapelketa eta nazioarteko beste proba batzuk ere jokatuko dituela aurreratu digu Ostadar Inklusio taldeko kideak.



Ostadarreko B16 mailako taldea Donosti Cupeko Europa Leagueko garaikurrarekin. OSTADAR FUTBOLA

Ostadarreko B16 taldea, Donosti Cupen garaile

Europa League faseko finalera iritsi eta irabazi egin du talde urdin-beltzak. Ekintza 3-1 garaitu ostean, garaikurra altxa dute gazteek. Herriko gainerako ordezkariak ederki lehiatu arren, kanporaketa maila ezberdinetan lehiaketa utzi behar izan dute

Txintxarri

Donosti Cup lehiaketa amaitu da. Lasarte-Oriatik nazioartera, ehunka talde aritu dira lehian Gipuzkoa osoan. Hilaren 7an eta 8an, Champion Leagueko finalak Anoetan jokatu zituzten arren, ez

zen herriko talderik egon bertan. Europa Leaguen B16 mailako finalean, aldiz, Ostadar SKTko taldea izan zen. Berion lehiatutako norgehiagokan Ekintza izan zuen aurrez aurre talde urdin-beltzak eta garaikurra erdietsi zuen.

Lehen fasean A multzoan Orlando City estatubatuarra, Madrilgo Aravaca Soccer Madrid eta Zestoa izan zituen aurkari Iñaki Azepeitia, Rodrigo Gil eta Aitor Aristondok zuzendutako taldeak. Garaipen bat eta bi

porrotekin multzoko hirugarren bezala Europa League fasean sartu zen Ostadarreko taldea.

Neurketaz neurketa Antigua Luberri BHI, Donostiarra CD, Arin Luzien frantziarra eta Madrilgo CSF Team taldeak garaitu zituzten gazteek finalaren bidean.

Hilaren 8an Mikel Arregi eta Aitor Otamendi herritarrek zuzendutako Ekintzaren aurka jokatu zuten azken partida. Ostadarreko jokalariek gogotsu ekin zioten. Lehen zati borrokatuan Aimar Aristondok aurreratu zuen Lasarte-Oriako taldea eta bigarren zatia erdialdean Pablo Campoo eta Iker Lizasoren goleak -azkena, falta zuzeneko gol "paregabea"-garaipena eman zioten Lasarte-Oriako taldeari. Ekintzak azken minutuetan gainditu zuen urdin-beltzen ateko marra.

Taldeko prestatzaileak pozarren daude jokalariek egindako txapelketarekin. Finalean egondako giroa nabarmentzen dute.

Aurkari berak kaleratu

Ez zen kontsolazioko txapelketako azken fasetik gertu egon zen talde bakarra izan. B19 mailan Ostadar eta Texas Lasartearra taldeak finalerdi eta laurdenetan izan ziren, hurrenez hurren. Biek borroka bera izan zuten, gerora garaile izango zen Martutene KE.

Texas Lasartearraren taldeak final laurdenean egin zion aurre

Donostiako taldeari. Michelin kirol gunean, hilaren 7an, Sags Cestas taldea 0-2 garaitu eta egun bat geroago, Martutenerekin neurtu zituen indarrak. Partidako lehen zatian talde urdin-zuria 0-1 gailentzen joan arren, bigarren zatian bi gol egin zituen Martutenek eta aurrera egin zuen fasean.

Finalerdian, Ostadar SKT izan zuen aurkari Donostiako taldeak. Final laurdenean azken bost minutuetan eskuratutako golari esker, 0-1 gailendu zen Lasarte-Oriako taldea Hondarribiren aurka. Alabaina, finalaurrean ez zuen zorterik izan talde urdin-beltzak. Lehen zatian donostiarrak 1-0 aurreratu ziren eta atsedendialdiaren ostean, banako berdinketa lortu zuen Ostadarrek. Neurketa horrela amaitu zenez, penaltietan erabaki zen sailkapena. Martutenek lautan bidali zuen baloia sarera; urdin-beltzeko jokalariek, aldiz, bitan.

Gainerako taldeak

Final zortzirenetan erori ziren Ostadar B14 eta Texas Lasartearrako B11, B10 eta B9 taldeak.

Eta Champions Leaguerako sailkatu ziren Ostadar SKTko B15 eta B13 taldeak zein Europa Leaguean aritu ziren B11 eta G14 zein Texas Lasartearrako B15 eta B13 final hamaseirenetan edo hogeita hamabirenetan utzi zuten txapelketa.

Urre bat eta hiru brontze, Udako Euskal Herriko txapelketan

Buruntzaldea IKTKo Sarobe, Lopez eta Etxeberria ederki jardun dira; Sarobek bi marka pertsonal ere ondu ditu

Txintxarri

Hilaren 7tik 9ra, infantil, junior eta absolutu mailako Euskal Herriko Txapelketa ospatu zuten Gasteizko Mendizorrotza igerilekuan. Bertan bildu ziren igerilari guztien artean, Buruntzaldea IKTKo hiru ordezkari izan ziren lehian -Miren Sarobe, June Lopez eta Garazi Etxeberria- eta junior mailan, lau domina eskuratu zituzten.

Garazi Etxeberria lau probatan jardun zen: 50 m., 100 m. eta 200 m. libreetan zein 50 m. bizkar proban. Etxeberria bere

marketatik gertu ibili zen eta horri esker, junior mailako hiru dominarekin itzuli zen etxera: 100 m. libreetan urrezko domina jantzi zuen eta 50 m. zein 200 m. libre probetan hirugarren postua eskuratu zuen.

June Lopezek bizkar estiloko hiru probatan (50 m., 100 m. eta 200 m.) egin zuen igeri. Buruntzaldea IKTKo prestatzaileek azaldu dutenez, "Hasiere batean 100 m. libre proban ere parte hartzeko asmoa bazuen ere, ostegunean gaixorik aurkitzen zen, sukarrarekin;



Udako Euskal Herriko txapelketan parte hartu duten hiru igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

beraz, ostiraleko jardunaldian atsedean hartzea erabaki zuen". Hala ere, gainerako hiru probetan ederki jardun zen Lopez eta horren adierazle da 02.37,59 markarekin 200 metroko proban

junior mailan lortutako brontzezko domina.

Miren Sarobe, aldiz, libre erako 50 m., 100 m. eta 200 metroetako probetan eta tximeleta erako 50ekoan lehiatu zen. Bi probetan

marka pertsonalak ontzea lortu zuen; 200 m. libreetan, 02.21.99 egin zuen eta 50 m. libreetan, berriz, 29 segundoetatik jaiste lortuz, 28,92an utzi zuen bere marka pertsonala.

Gorabehera ezberdinak izan arren, igeriketa taldeko entrenatzaileak gustura daude lortutako emaitzekin.

Era berean, Lopez eta Sarobek oporrak hasiko dituztela jakitera eman dute; Etxeberriak ez du atsedenean izango oraingoz, ordea. Hilaren 26tik 29ra Malagan ospatuko den Junior eta Absolutu mailako Espainiako Udako Txapelketan parte hartu igerilariak: "Euskal Herriko txapelketako emaitza horiek bide onetik doala adierazten dute eta lanean jarraitzea tokatzen da, azken txanpa egin eta denboraldiari amaiera ederra emateko".

Donostia Arraun Lagunak-ek lidergoari eutsi dio

VII. Fabrika banderan bigarren eta III. Edinor banderan hirugarren postuan sailkatu da Aiora Belartietak herritarraren ontzia. Hondarribia Bertako Igogailuak eta Intza Fernandezek bosgarren amaitu dituzte Euskotren ligako bi hitzorduak

Txintxarri

Lasarte-Oriako arraunlariak Donostian eta Zierbenan izan ziren lehian hilaren 8an eta 9an. Donostia izan zen KAE 2 mailako zein Euskotren Ligako lehen geltokia.

Goizean KAE 2 mailako XIII. Kirol Txartela Bandera lehiatu zuten. Gaizka Ormazabal kide duen Hibaikak bigarren txandan parte hartu zuen Orio Astillero eta Portugaleterekin batera.

Lehen luzean atzean hasi eta laugarren iritsi zen zia bogara errenteriako ontzia. Bigarrenean, aldiz, metroak irabazi eta Portugalete aurreratu ostean, hirugarren postuan iritsi zen zia bogara. Postu hori mantendu zuten helmugaraino. Ligako sailkapen orokorrean ere postu berean da Hibaika.

Lehia bizia

Arratsaldean, aldiz, Euskotren Ligako ontziek VII. Fabrika



Aiora Belartietak, brankan, Fabrika banderako une batean. EUSKOTREN LIGA / AITOR ARRIZABALAGA

bandera lehiatu zuten Kontxako uretan.

Hondarribia nagusi izan zen lehen txandan, baina bosgarren postuan amaitu zuen jardunaldia.

Bigarren txandan, aldiz, lehia bizia izan zen. Donostia Arraun Lagunak, Orio Orialki eta Nortindale Donostiarra

hasieratik gogor jardun ziren. Aiora Belartietak kide duen eskifaiak aurea hartu eta zia bogara lehen postuan hartu zuten.

Ateratzean, aldiz, Donostiarra jarri zen buru eta postu horretan mantendu zen helmugara iritsi arte. Bigarren izan zen Lugañene.

Antonio Olideni, agur

Antonio Oliden Tolosa *Konpaxa* arraunlari, patroli eta entrenatzailea hilaren 6an hil zen, 97 urte zituela.

Orion jaioa eta lasarteoriartzat hartua, Olidenek 11 Kontxako Bandera eta lau Espainiako Traineru Txapelketa irabazi zituen lau hamarkadako ibilbidean.

Lasarte-Oriara arrauna Olidentarren eskutik heldu zen eta Michelin fabrikaren inguruan loratu 1960ko hamarkadan. 1969an Oliden arraunlari zela lehen Kontxako Bandera irabazi zuen herriko traineruak eta 1973an, oraingoan patroli lanetan, bigarrena. 1979an desagertu artean, beste arrakasta batzuk ere izan ziren.

2020. urtean, Lasarte-Oriako Udalak eta Michelin enpresak "zor zitzaion" omenaldia egin zioten.



Antonio Oliden, 2020an egindako omenaldian. TXINTXARRI

Hilaren 9an, aldiz, Zierbena, Bizkaira bidaiatu ziren ligako ontziak asteburuko bigarren hitzordua jokatzera.

Larunbatean, bezala, Hondarribia lehena izan zen bere txandan eta Intza Fernandez herritarra kide duen eskifaiak bigarren txandaren zain egon behar izan zuen. Azkenean, bosgarren izan ziren berriro.

Orio Orialki bandera etxera eraman nahi zuela argi utzi zuen hasieratik eta aurre hartu zuen lehen metroetan.

Donostia Arraun Lagunak-ek, aldiz, aldea murriztu, horiak

gaintu eta zia bogara ematen lehena izan zen.

Bigarren luzean Orio eta Tolosaldea Lugañeneren mailara iritsi ziren eta hiru ontziak batera joan ziren helmugara 100 metro geratzen zirenera arte. Mirotzek azken ahalegina egin eta garaipena erdietsi zuten. Tolosaldea sartu zen ostean eta hirugarren Lugañene.

Bi jardunaldietako postuekin Euskotren Ligako buru mantendu da Donostia Arraun Lagunak. Hondarribia Bertako Igogailuak, aldiz, bosgarren da sailkapen orokorrean.



ISAAC FARRE RICO

Lehia ederrak, Hipodromoan

Hilaren 9an, sei probaz gozatu ahal izan zuten zaldien zaletuek Hipodromoan. Lasterketa politik ikusi zituzten eta horietako bat, Kriterium Nazionalean izan zen. Fayos-*Flaming Gas* eta Meyer-*Teixeira* bikoien artean borroka ederra izan zen. Zigortua egon ondoren, Borja Fayos lasterketetara itzuli zen eta arratsaldeko sari nagusian garaipena eskuratu zuen. Ricardo Sousa jockeya eta Oscar Anaya entrenatzailea izan ziren arratsaldeko beste protagonistak. Prestatzaile argentinarren *Quejo* eta *Corps des Pages* zaldiak gidatuta Noticias de Gipuzkoa eta Gautena sariak eskuratu zituen jockey portugesak.



Alkain, lehiaketan. OSTADAR ATLETISMOA

Alex Alkain, 18 urtez azpiko Espainiako txapelketan

Hilaren 7tik 9ra 18 urtez azpiko Espainiako txapelketa lehiatu zuten, Gijonen. Ostadar Atletismo saileko Alex Alkain gazteak luzera jauziko proban parte hartu zuen eta sailkapen proban 6,08 metroko jauzia eginez ezin izan zen finalerako sailkatu.

Jubenilek, zorterik ez Hernaniko eta Getariako txapelketetan

Lehiatik kanpo geratu dira jubenilak Getarian. Santa Ana Pala Txapelketako finalerdiak hilaren 20an jokatu dituzte

Txintxarri

Intza Kirol Elkarteko Haritza Diaz de Gereñu eta Peru Urdanpilleta jubenil bikoteak ez du aste ona izan. Hilaren 8an, Getariako Salvatore txapelketako bidea amaitu zuten eta 12an, Hernaniko Zikuñaga Papelera txapelketan ere ezin izan zituzten aurkariak gaintu.

Getarian, Intzako kideek LAPKEko Izagirre-Goiburu bikotea izan zuten aurkari; lazkaotarrak 7-22 gailendu ziren.

Lau egun geroago, Ilunpeko Bidezabal eta Larrañaga bikotearen aurka neurtu zituzten

indarrak eta aurkako 18-7ko emaitza jasan zuten berriro gazteek.

Santa Ana, finalerdietan

Lasarte-Oriara eginez, Santa Ana Pala Txapelketako lehen faseari amaiera eman zioten bart, hilak 13.

Hilaren 20an, ostegunarekin, finalerdiak jokatu dituzte Loidibarren pilotalekuan; finala, Santa Ana egunean, hilaren 26an.

Edizio hau itxi baino lehen, finalaurretako bikoteak zehazteko erabakigarriak ziren neurketak jokatzeko ari ziren.

ZORION AGURRAK



Aimar
Zorionak, maitia!
Gozatu zure egunaz eta etorriko diren guztiez!
Infinitu maite zaitugu.
Zure gurasoak.



Joanes
Zorionak Joanes! Bi urtetxo betetzen dituzu.
Ze haaAAaandia!!
Gogotik ospatuko dugu elkarrekin!



Maddi
Zorionak Maddi...0? E? EOA EEOA! Xoriek erran digute, Antxoko lankidearen urtebetetze eguna dela gaur... eta guk, zure itzulera espero dugu bulegoan, hori bai, hamaiketakoarekin... Gaur, gainera, ez duzu kuadrillategi... gozatu!

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu.



Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.
Deitu 943-37 14 48 telefonora,
bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data
txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora
edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:
943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTTERRI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINAZA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112


SUDOKUA

4	7		5		2		6	
	9			1				2
6	2				9	8	5	
					7		4	6
7		4		3				8
					5		2	3
		5		6		2	8	
2	4		9	5		6		
	3	6			1	4		


Sudoku10.net

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 14




Larunbata, 15




Igandea, 16




Astelehena, 17




Asteartea, 18



Asteazkena, 19



Osteguna, 20



ESKUTITZA

Azkena izan dadin

MIREN GURUTZE AGIRRETXE AGIRRE

Kaixo:

Ni herrikide bat naiz. Datorren hauteskundeetan "boikota" egingo dut.

Zertarako bozkatu? Gero, agintariek "bozka" nahi duten bezala erabiltzeko?

Ez daikagu erakunde ausartik, ezta ere altura klase politikorik. Bakarrik "boterea" nahi dute.

Bakoitzak bera egin behar luke, eta kitto.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 14	URBISTONDO	EGUNeko FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 15	DE ORUE	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 16	DE ORUE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 17	DE MIGUEL	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 18	DE ORUE	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 19	DE MIGUEL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 20	LASA	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00

K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943 33 60 77

URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

OHARRA

Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera.

Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

Eta txistua aspaldi alboratu zenuelakoan herdoilduta zaudela uste baduzu, zaude lasai. 19:00etan etor zintezke, eta gutxinaka-gutxinaka garai bateko soltura berriro hartu. Zatoz, primeran pasatuko duzue-eta!

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz
jarraitu herriko albisteak sarean



www.txintxarri.eus

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN
Garaje marra alokatzen dut Urdaneta eraikinean, beheko solairuan. Sarbide eroso. Harremanetarako zenbakia, 620 18 87 87.
Bi neska gazte gara eta pisukide bila gabilta. Etxea Zabaleta auzoan dago, 70 m2 ditu eta alokairua hilabetean 200 euro dira (gastuak aparte). Interesa baduzu deitu mesedez telefono honetara: 663 93 51 76 (Irati)

LANA

ESKAINITZA
Jalgi Kafe Antzokiak zerbitzaria behar du, astean 20 orduz lan egiteko eta,

ahal dela, berehala hasteko. Harremanetarako zenbakia, 696 55 29 25.
Zientzia arloak, ingelesa zein pintura eta manualitateak gaiak eskainiko dituzten irakasleak behar dira ikasturte osorako. Interesatuak bidali CVa info@zitek-akademia.com helbidera.

Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabilta. Kobrea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

ESKARIA

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz

adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketari...) FP-2 mekanizatua egina dut. Zubietan bizi naiz. Harremanetarako zenbakia, 602 082 583.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. Harremanetarako zenbakia, 602 082 583.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak

Egoitz Epelde, Nora Navarro,
Nikola Iraola, Xuban Urdaleta,
Sergio Hernandez, Ander Hazas,
Endika Merchan eta Gorka
Morales.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN



LASARTE-ORIA Jaiak. Karmengo Jaiak ospatuko ditu herriak zaindariaren egunean: igandea, hilak 16. Antolatzaileek egun osoko egitaraua prestatu dute adin eta gustu guztientzako. Bertaratzeko interesa dutenek behean kontsulta ditzake iragarritako jarduerak zeintzuk diren.
Etzi, hilak 16, Brunetenea parkean, egun osoan zehar.

OSTIRALA 14

LASARTE-ORIA Entsegua

Santa Ana eguneko parodia prestatzen entseguetan ari dira ekimenean parte hartuko dutenak, eta horiek jarraituko dute gaur. Hilaren 21ean izango da azken entsegua.

Manuel Lekuona kultur etxea, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Agurea, urpekaria eta itsasoa antzezlanaren emanaldia egingo du Hortzmuga Teatroa konpainiak, Kale Antzerkia Bultzatuz zikloaren barruan. Sarrera doakoa da.
Okendo plaza, 19:00etan.

ASTIGARRAGA Musika

Ilunabarrak Gobadarien parkean egitasmoaren barruan, Keramonte musika taldeak emanaldia eskainiko du. Sarrera doakoa da.
Okendo plaza, 20:00etan.

LARUNBATA 15

USURBIL Musika

Donostiako Musika Hamabostaldiaren barruan, organo zikloaren musika emanaldi bat egingo dute Usurbilgo Salbatore elizan. Monica Melcova organo jotzailea arduratuko da instrumentu hori jotzeaz, eta berarekin batera arituko dira Alaia Martin eta Andoni Egaña

bertsolariak.
Salbatore eliza, 20:00etan.

IGANDEA 16

LASARTE-ORIA Jaiak

Karmengo Jaiak ospatuko ditu herriak asteburuan. Antolatzaileek egun osoko egitaraua prestatu dute eta hauek dira iragarri dituzten jarduerak:

10:30ean, Diana.
11:00etan, haur jolasak.
12:00etan, buruhandiak.
12:30ean, meza.
13:30ean, luntxa, Xumela koruak girotuta.
16:30ean, ur jolasak.
17:00etan, toka txapelketa.
17:00etan, haurrentzako puzgarriak.
17:30ean, merendola.
18:00etan, Sorgin Dantza.
19:00etan, zunba eta bodyconbat.
20:00etan, Ibai Berriak taldearekin dantzaldia.
Oria auzoa, egun osoan zehar.

USURBIL Museo irekia

Usurbil Museo irekia bisita gidatuaren saio berri bat antolatuko du 650 Usurbil Bizi taldeak. Antolatzaileek iragarri dute Zumeta Estudioan amaituko dela. Bertaratu nahi dutenek aurrez izena eman beharko dute, eta horretarako honako ataria erabil dezakete: www.650Usurbilbizi.eus.

Salbatore eliza, 20:00etan.

OSTEGUNA 20

LASARTE-ORIA Zinema

hitten elkarteak bere lana proiektatuko du: *Lasarte-Oria: istorio zumez egina*.

Antolatzaileek iragarri dute Okendo plazan izango da emanaldia.

Okendo plaza, 22:00etan.

OSTIRALA 21

LASARTE-ORIA Antzerkia

Nexo magia ikuskizuna Jon Zabal magoaren eskutik. Kale Antzerkia Bultzatuz zikloaren barruko emanaldia izango da. Sarrera, doan.

Okendo plaza, 18:00etan.

IGANDEA 23

LASARTE-ORIA Azoka

38. Santa Ana Artisau Azoka egingo dute. Honako ordutegia izango duela iragarri dute antolatzaileek: 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Okendo plaza eta inguruak, 10:00etatik aurrera.

ASTEAZKENA 26

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Santa Ana Eguna opatuko dute lasarteoriatarrek. Eta horretarako, hau da Ttakun Kultur Elkarteak, udalarekin elkarlanean prestatu duen egitaraua:

11:00etan, meza Ama Brigitarren komentua. Ondoren, luntxa.
12:00etan, Erketz EDTren dantza, Santa Ana karkaban.
18:30an, desfilea herrian barrena.
20:00etan, Santa Ana parodia, Okendo plazan.
Herriko zenbait txokotan, 11:00etatik aurrera.

OSTIRALA 28

LASARTE-ORIA Dantza

Otempodiz dantza ikuskizuna, Ertza antzerki eta dantza taldearen eskutik. XIX. Dantza Zirkuituaren barruko emanaldia izango da. Sarrera, doan.

Okendo plaza, 19:00etan.

ZINEMA



DOKUMENTALA

'Lasarte-Oria: istorio zumez egina'

Herria, emakumeen ikuspuntutik

Hitten elkarteak bere lan "kuttuna" proiektatuko du datorren ostegunean, hilak 20, Okendo plazan, 22:00etan; *Lasarte-Oria: istorio zumez egina* dokumentala.

Hiru belaunaldi desberdinetako zenbait emakume herritarren lekukotzak jaso, eta zumearekin nola, elkarri lotu, ehundu eta txirikordatu dituzte egileek. Argi adierazi dute dokumentala ez dela Lasarte-Oriaren historiari

buruzko errepaso kronologiko bat; herriaren bilakaera eta gai gehiago jorratu dituzte emakume horien ikuspuntu eta testigantzetatik.



txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

ESKATU TARIFAK

Zure iragarkia jarri nahi duzu?
Jar zaitez gurekin harremanetan!

Deskontu bereziak herrikoentzat!

publizitatea@ttakun.eus
646 82 44 66



Ikusmin izugarria sortu zuen iazko parodiak, ikus-entzuleek lepo bete baitzuten Okendo plaza. TXINTXARRI

Santa Anako parodia prestatzen ari dira

Hilaren 26an, urtero bezala, ikasturtearen errepasso umoretsua egingo dute antzezlanean parte hartuko duten aktoreek, Okendo plazan, 20:00etatik aurrera. Bestalde, udalak iragarri du hiru egun lehenago egingo dutela 38. Santa Ana Artisau Azoka, erdigunean

Txintxarri

Bando, bando, alkateak esan do! esaldia entzuteko gero eta gutxiago falta da. Urtero bezala, hilaren 26an, Santa Ana eta San Joakin egunean, ikasturtearen errepasso umoretsua egingo du aurtengo parodian parte hartuko duen aktore boluntario taldeak, Okendo plazan, 20:00etan. Herrian puri-purian izan diren hainbat gai hartuta prestatu dute gidoia Julen Basterrak, Juan Luis Eizmendik eta Pablo Barriok; orain, bertan jasotako barneratzen eta oholtza gainean jartzen ari dira aktoreak, Manuel Lekuona Kultur Etxean aurrera eramaten ari diren entseuetan. Bigarren txanda hilaren 17tik 21era egingo dute, 18:00etatik 20:00etara.

Parodiaren eguna hurbildu ahal emango dituzte antolatzaileek xehetasun gehiago, besteak beste, nortzuk izango ote diren aurtengo akusatuak. Pertsonaia bitxiz osatutako tribunalak sutara bidali edo ez erabaki beharko du.

Artisau azoka, 23an

Egun berezi horretarako motorrak berotze aldera, Lasarte-

Oriako Udalak iragarri du 38. Santa Ana Artisau Azoka aurrera eramango duela hilaren 23an, igandearekin, Okendo plazan eta inguruetan. Makina bat postu izango dituzte herritarrek aukeran, bertaratu eta salgai dagoena ikusi eta erosteko. Ordutegia hau izango da: 10:00etatik 14:00etara goizean, eta 17:00etatik 20:00etara arratsaldean.

Pintxoak eta pala txapelketa

Aipatutakoak ez dira izango Santa Ana egunaren bueltako ekimen bakarrak, izan ere, Aterpea merkatariaren elkarteak jakinarazi du pintxo ibilbidea egingo duela aurten ere. Horri buruzko xehetasunak hilaren 19an emango ditu, Hiru Aldeta tabernan.

Bestalde, 40. Santa Ana Pala Txapelketa aurrera eramaten ari dira hilabete hasieratik Loidibarren frontoian. Lehen fasea bukatu berri, udalak iragarri du 3. eta 4. postuen norgehiagokak eta final handia hilaren 26an bertan jokatuko dituztela pilotaleku horretan bertan, 17:30ean eta 18:30ean, hurrenez hurren.

uztailak 26

11:00etan

Santa Ana eguneko meza, Ama Brigitarren komentuan. Ostean, luntxa.

12:00etan,

Erketz EDTren dantza, Santa Ana karkaban.

18:30ean,

Desfilea herrian barrena

20:00etan,

Santa Ana parodia.
Okendo plazan*



* Eguraldi txarra eginez gero Manuel Lekuona Kultur Etxean egingo da.